


«MENDEKOZTE JAIK LEZON»

Gaur erraldoiturik diren Errenteria eta Pasaia artean kokaturik dagoen Lezo herri «ttikian» laster, eta urtero bezala aurten berriro ere, Mendekozte Jaiak edukiko ditugu. Lezo herriaren ttikitasuna aipatu dut, marratxoen arteko ttikitasuna, ez bait da gaur egun horren ttikia, koxkorra baizik —lezoarren hizkera erabiliz—. Ez da horren ttikia, ez, bere bost mila biztanle inguru bait ditu, baina aldameneko herrien haunditasunaren parean ttikia, arront ttikia geratzen zaigu Lezo, bailarako ttikiena alegia.

Baina ttikia izan arren, Lezok baditu bere jaiak, haundiak, jatorrak, alaiak,... ez nolana hikoak. Betidanik, edo agian hobeto esanda ezagutzen dugun iragan hurbil batetik, Lezok bi festaldi haundi eduki ditu, biak erlijioso kutsukoak, inguruetakoko herri gehienetan gertatzen den bezalaxe. Jairik haundienak iraillekoak dira, herriko plazan dagoen ermitan babesten den Gurutze Santuari eskeinitakoak, Santa Krutzak. Oraingo hauek, Mendekozte Jaiak, bigarren jaiak ditugu, apalagoak izateagatik txarragoak ez direnak. Hasiera batean erlijio jaiak zirenak, edo erlijioarekiko lotura estuak mantentzen zituztenak, denboraren poderioz, beste modu, bide eta jazkeretara igaro ziren. Eta gaur, Lezoko etxe askotan erlijio kutsua galdu ez den arren, bestelako ekitaldiek jaiaren zatirik zabalena hartu dutela esan beharra daukagu.

Aipaturiko giro erlijiosoa ondo erreparatu daiteke lezoar semea zen IRUZUBI izeneko olerkariak, 1.931.ean, Errenteriako «Bertsolariya» izeneko aldizkarian plazaratu zituen Lezoko festei buruzko olerkietan. Ikus dezagun bada:



1.958- Frankismoaren garaian gaude, eta agintariek ez dute euskara asko estimatzen.

LEZOKO FESTETAN

1.

Lezon festak ditugu
txit zorunak
ongi etorri bitez
jai egunak
ta eliz dorreko ezkill'ots
legunak.
Alaitu bitza biotz
euskaldunak.

2.

Txistulariak dira
goiz jotzalle
su-ziri otsa gure
esnatzalle
ta guztiok izanik
jeiki zale
emen gabiltza saltoka
jota kale.

3.

Tilin... talan,... kanpanen
eresia
jendea'ren poza ta
irrintzia
elizatxotik deika
Gurutzia
zer da gaur onen egun
berezia?

4.

Gurutze doitzu laguntz
emallea
zeralako zu gure
maitallea
emen dator gaur zure
artalde
goratu nairik «Jesus»
zaitzallea.

5.

Zure goi maitasunez
zoratuak
gaude lezotar fedez
berotuak;
Zure oñ, eta esku
zaurituak
izan bitez gaur bertan
sendatuak.

6.

Gurutz iltzatutako
Jesus ona
bete ditzazu gure
bear danak
ta eskeñiko dizugu
biotz bana
zuri arintze arren
neke-lanak.

Baina utz dezagun bazterrera Lezoko jaien kutsu erlijioso nabarmena eta aipadezagun beren antolamendu jatorra. Jatorra diot, antolatze eta aurrera eramate hortan, herriko elkarte eta erakunde guztiek hartu bait dute betidanik parte. Eta nahiz eta beraien artean, askotan ezberdintasun haundiak egon, politikoak, ideologikoak, ezin ikusiak,... ez da inoiz inor saiatu besteen jaiak zapuzten, edo baten bat artaldetik kanpo utziz. Eta elkarren arteko lan honetatik datorkie beren jatortasuna, beren herritartasuna, beren kohesio haundia. Festak danentzako egiten dira, eta danok daukate beren tokitxoa, bai haurrek, bai gazteek, bai helduek, bai jubilatuek, bai baserritarrek,...


LEZO
MENDEKOZTE
EKAÏNA - 1979



LEZO

1.979.- Frankismoa bukatu berria da, eta lezoarrok parrandarko gogo haundia genuen. Udal Gesto jaioberriak Jose Cruz Sarasola aukeratu zuen alkate.

LEZO
MENDEKOZTE
MAIATZA 1982



1.982.- Patri Urkizu izan zen lehenengo alkatea, hauteskundeen bitartez, aukeratua izan zena.

danok daukate beren gustuko zeredozer lezoar mendekozteetan. Esan dezadan berriro ere, jai ttikiak direla baina aberatsak denbora berean, apalak baina ospetsuak, erlijioso kutsukoak eta mundatiarrak... Honela dira Lezoko Jaiak eta honelaxe nahi ditugu urte luzeetarako. Xenpelar eta Ardotx bertsolariak ondo laburbildu ziguten dana hau gurganaino iritsi diren hiru bertso xeblere hauetan:

LEZOKO JAYETAN

- 1.- Orain asi biagu asunto berriyan, zer gertatzen zaigun Lezoko erriyan neska gaztiak daude emen alegriyan kantaren aitzakiyan mutillen erdiyan.
- 2.- Emakume kontuan al zerade asi? garenez konsideratu lenbizi jendiari nai diyot emen adierazi ia zein juaten dan neskatxen igesi?
- 3.- Ia dama guztiak ondo entzun arren ez utzi sartutzen nai dan bezin barren asiko liakenak Xenpelar baño len bizar aundi batzuek badirade emen.




LEZO
Mendekozte - Maiatza 1985



LEZO - PENTECOSTES

1.985.-Lezo beti jaietarako pronto. Arantxa Zeberio zen alkate.



1.988.-Mikel Arrizabalaga alkatearen garaiko Mendekozte Jaiak.



1.989.- Mendekozte Jaiak ondo erroturik daude gure artean.

Bestaldez, esan beharra dago ere, Lezon badirela jai gehiago, hirugarren mailako jaiak esango nuke nik, beraien artean Trapujale izeneko pertsonaiaren inguruan ospatzen diren ihauteri famatuak, baita Xanxebastianetako danborrada, Santa Agedaren koblak, kaldereroen konpartsa, «Tomas Garbizu» Musika Kontserbatorioak antolatuturiko Lesoinu izeneko musikal ihardunaldiak, Udaberri Jaia, San Joan gau magikoa, Pysbeko Jaiak, Gaintxurizketakoak, Altamirakoak, Olentzeroak, Urte Zaharreko koplak zaharrak,... Baina Lezoko herriaren izaten sozio kulturala horrenbeste urratzen dituzten jai eta ekitaldi dena hauek beste baterako eta astindu gabe utziz, ikus ditzagun zeintzuk eta nolakoak diren oraingo Mendekozte Jai hauek osatzen dituzten festa, kirol edo giza arloko ekintzarik ospetsuen edo tradizio haundien dutenak.

Jai hauei hasiera emateko, lehenengo eguneko ilunabarrean ikurriña eta lezoar bandera zabaltzen dira udaletxeko balkoian. 1.990.etik zintzilikatu egiten dira ere sei Euskal Herrietako ikurrak eta Arrano Beltza zaharra, herriko plazari kolorismo handia emanaz. Festa hauetan toki handia hartzen dute, eta aspaldidanik, Allerru Elkartek goiz aldero plazan antolatzen dituen sokamuturrek, hauez gain gaueroko dantza saioek, herri kirolek eta idi demak. Jai hauetako egun bat baserritarrena da, eta egunotan, herri kirolek eta Ixkulin Elkartek antolatuturiko idi demak gorputza, sendotasuna ematen diote. Haurrei eskeinitako ekitaldi eta jolasak ez dira inoiz falta, jai hauei beste dimentsio zabalagoa emanaz. Mendekozte Festetan antolatzen da ere, Helduen Mailako Fandango eta Arin-arin Txapelketa, bertako Dantza Eskolak eraturik, eta herrira hainbeste dantzari erakartzen duena.

Oso garrantzi haundikoak dira baita ere, Allerruk antolatutako pilota partiduak, eta igande bezperako gauean herriko preso eta erbesteratuen alde, bertako Amistiaren

Aldeko Batzordeak deituriko manifestazio arrakastatsu eta jendetsua. Lezok, ez bait ditu inoiz, sufrimentuetan dituen seme-alabak ahazten. Aipatzekoa da ere, azkeneko urtetan ospatu den gizon proba, herriko Herri Kirol Taldearen eskutik plazaratu zaiguna.

Bai Santa Krutzetan eta bai Mendekozte Jaietan ohitura bihurtzen ari zaigu, orain arte Kultur Batzordeak, eta azken denboretan Herriko Elkarte eta Erakundeen Koordinakundeak kaleratzen duen «LEZO» izeneko aldizkaria, non herriko idazle, olerkari eta bertsolari frankok parte hartzen duten, beren idazlanak eta bestelakoak plazaratuz. Itxaro dugu gogo haundiz aurtengoa ere aurrekoak bezain mamitsua izan dadila. Jai hauen azkeneko egunean, ilunabarrean, ohizko zezen suzkoa erretzen da herriko plazan, jai bukaera alai bezain koloretsua emanez. Une beretsuan jeitsi egiten dira udaletxeko balkoian zintzilik egon diren banderak. Momentu zehatz hortatik aurrera, lezoarrak iraileko jai nagusien esperoan gelditzen dira, Mendekozteko pasaberriak baino pixkat hobegoak izan daitezten desiratuz.

Nik bukatu aurretik, eta lerro andana honek ematen didan aitzakiaz baliatuz, jai eder, alai eta jatorrak opa nahi dizkiet lezoar guztiei. Honela izan bedi!

JOSEBA AURKENERENA BARANDIARAN



1.990.- Askatasunaren ikurriña gure idealen seinale.



1.994.- Aitor Sarasola alkateak, ikurriña eta Lezoko banderak altxatuko ditu aurtengo Mendekozteetan, ohiturari jarraituz.